

## PRENTSA OHARRA

### 3D neurketak, aireontzi-belaunaldi berri baten eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko

- *Tekniker zentro teknologikoak metodo berritzaile bat diseinatu du aireontzien grabitate-zentroa kalkulatzeko. Haien oreka hobetzeko eta hegaldi-operazioak optimizatzeko aukera emango du.*
- *Sistemaren bidez lortutako informazioari esker isuriak murrizteko hegaldi-kontrolako sistema aurreratueta lan egin ahal izango da. Patenteen Europako Bulegoari eskatu zaio sistemaren patentea.*
- *Sistemak Dibalen eta Leonardo talde italiarraren lankidetzarekin ari dira garatzen, Clean Sky 2 programak finantzatutako WEIBAL Europako proiektuaren esparruan.*

[[Eibarren, 2022ko urtarrilaren 22a](#)] - Aeronautika-sektoreko azken aurrerapen teknologikoak garraio-sistema adimenduna, berdea eta integratua lortzera bideratuta daude, ingurumen-inpaktua murriztuko duena eta Europar Batasunak finkatutako helburuak lortzen lagunduko duena. Helburu horien artean daude CO2 isuriak % 75 murriztea eta zarata % 65 murriztea, EBko mugikortasuna hobetzen lagunduz.

Testuinguru horretan, [Tekniker](#) zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide denak eta bere teknologiak industria aeronautikoan aplikatzeko orduan eskarmentu handia duenak, 3D neurketa-sistema berritzaile bat diseinatu du datuak lortzeko, hala nola pisua, grabitate-zentroaren kokapena edo karga, eta informazioa erabiltzeko maniobra eraginkorragoak eta jasangarriagoak lortzeko hegazkinen belaunaldi berri batean. Neurketa-sistemak tiltrotor du izena eta helikoptero baten ezugarriak eta abantailak hegal finkoko hegazkin batenarekin osatzen ditu.

“Helikopteroaren eta hegazkinaren konfigurazioen artean aldatzeko aukerak sortutako egoeretan pisuen banaketa eta mugimenduaren norabidea aldatu egiten dira. Alde horretatik, hegazkinak pisatu eta orekatzeko gaur egungo sistemek bi dimentsiotan egiten dituzte neurketak, eta mugak dituzte grabitate-zentroa ezagutzeko; hori osagai kritikoa da

konfigurazio desberdinen arteko trantsizio horietan, hegaldian arazorik ez izateko eta propulsiio-sistemen funtzionamendua optimizatzeko”, azaldu du Oscar Gonzalo Teknikerreko Aeronautika Sektoreko arduradunak.

Muga horien arazoa gainditzeko, zentro teknologikoak hiru dimentsiotan neurtzeko aukera ematen duen soluzio bat garatu du, bai aireontziaren grabitate-zentroa, bai posizio guztietan orekatzea. Taldeak sentorika- eta fotogrametria-teknologiak konbinatu ditu neurketak automatizatzeko behar diren azpisistemak diseinatzeko.

Sistema osoak lortutako informazioari eta emaitzei esker, Patenteen Europako Bulegoari eskatu zaio horren patentea, hegaldia eta maniobrak kontrolatzeko sistema aurreratuetan lan egin ahal izango da, batetik, erregai-kontsumoa, isuriak eta jardueren ingurumen-inpaktua murrizteko eta, bestetik, hegaldian zehar maniobra desegokien arriskua minimizatzeko.

Sistema, batez ere, bere konfigurazioan aldaketak egiteko aukera ematen duten aireontziak ebaluatzeko pentsatuta dago, hala nola tiltrotor motako hegazkinak, helikopteroak edo droneak, izan ere, karga-banaketak eragin nabarmena izan dezake horien portaeran, baina hegazkintan eta ibilgailuetan ere aplikatu daitezke (kamioiak, lehiaketa-autoak...).

## **‘Next Generation’ aireontzia**

Zentro teknologikoaren garapenak WEIBALen esparruan egin dira. Teknikerreko koordinatutako Europako ekimena da WEIBAL eta, aurrerapen teknikoen bidez, Leonardo talde italiarra Europar Batasuneko Clean Sky 2 programaren finantziazioarekin fabrikatzen ari den Next Generation Civil Tiltrotor (NGCTR) aireontziaren konfigurazio berri bat gauzatzen laguntzea du xede.

Eraikitzen ari diren 6 tonako aireontzi-mota berri bat da, eta 500 km/h baino abiadura handiagoa harrapatuko duela espero da, helikopteroen bikoitza eta ia turbohelize-hegazkinek harrapatzen dutena. Baldintza meteorologiko txarretan bidaiari-hegazkin baten antzeko erosotasun-mailarekin ibiltzeko diseinatuta dago, eta gaur egun aireontziak nekez iristen diren urruneko eremu geografikoetara iristeko.

2023ko martxoan amaituko da WEIBAL eta honako hau izango da proiektuaren hurrengo urratsa: otsailean erabilgarri edukitzea Italian neurketa-sistemaren prototipoa balidazio-probak

egiteko. Proiektuan DIBAL enpresak ere parte hartzen du, prototipoaren baskulen azpisistema diseinatzeaz eta fabrikatzeaz arduratuz.

## Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundea eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK ▶ Unai Macias**

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067